

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA
INSTITUCION «PRINCIPE DE VIANA»
SECCION DE «LENGUA VASCA»

DOMINGO 27 DE AGOSTO DE 1967

VERA DE BIDASOA

FIESTA VASCA

CON MOTIVO DEL REPARTO DE PREMIOS A LOS NISOS QUE HABLAN VASCUENCE DE VERA DE BIDASOA

A LAS TRES Y MEDIA: VISPERAS.

A CONTINUACION, EN LA PLAZA DE JAUN DE ALZATE:

1.° REPARTO DE PREMIOS.
2.° EXHIBICION DE DANZAS DEL PAIS VASCO POR LOS DANTZARIS DEL EXCMO. AYUNTAMIENTO DE PAMPLONA.
3.° ACTUACION DEL CORO DE LEIZA.
4.° ACTUACION DE LOS BERSOLARIS AROZAMENA, XALBADOR Y LASARTE.
5.° ACTUACION DEL GRUPO «EZDOK AMAIRU» DE CANCION VASCA MODERNA, CON LA PARTICIPACION DE LERCHUNDI, LETE, LABOA Y LOURDES IRIONDO.

«PERU TXIKI», DE PAMPLONA, ACTUARA EN LOS INTERMEDIOS.

UN CORDIAL SALUDO A TODOS, Y ENHORABUENA A LOS NISOS PREMIADOS.

# 1967ko Euskal Besta Beran

Guk ekarri gabe ere, etorri egiten baitira, urteak pilatzen ari zaizkigu bata bertzearen gainean, kupidarik gabe. Hementxe gabiltza, ttirriki-ttarraka, bizitzaren lasterketa honetan, batzuetan malda goiti, bertzeetan zelaian, tarteka malda beheiti ere bai. Bidea egiten ariki, bizikleta gainean eta lepotik zintzilika boltsa urdin bat eramaki dugula. Nire adina dutenak oroituko dira, eskolara joaten ginelarik, non eramaten genituen liburuak, koadernoak, lapitzak, bokadilloa... Ez zen larruzko kartera izaten, ezta lona edo plastikozko motxila ere. Oihal urdin ilunezko zera bat izaten zen, guri Ramona jostunak egina.

Fardel urdin hura nire gogoaren xoko batean dut oraindik. Eta haren barrenean, orduko oroitzapenak.

Oroitze horietako bat badut, orain dela berrogei bat urteko udako igande batekoa. Altzateko plazan ginen eta bero egiten zuen. Eguraldi ederra behinik behin. Plaza jendez leporaino betea zegoen eta kioskoan mikrofonotik ari zen gizona neska-mutiko guziei deika hasi zen. Erdi lotsatuak, eskala haietatik goiti joan eta gizonak diploma bana eman zigun denei. Agiria partitzeko lana akabatzean, berriz, kanpoko gazte batzuk agertu ziren jende aitzinera. Bizpahiru mutil eta neska bat, ile luze ikusgarria zuena. Kantari hasi ziren, gitarrarekin eta euskaraz. Jende guzia harritua.

1967ko abuztuaren 27a zen, eta ospakizun hari "Euskal Besta" izena eman zitzaion. Nafarroako Diputazioak antolatu zuen, "Beratar euskaldun muttiko eta neskatxo guziei" euskaraz jakiteagatik "sariak emateko". Kantari haiek Ez dok amairu taldeko Benito Lertxundi, Xabier Lete (ustez bizarrarekin, denbora hartan!), Mikel Laboa eta orain dela urte pare bat eskas hil zaigun Lourdes Iriondo ziren.

Etxean altxatua dut orduko diploma hura. Han jartzen duenez, "Naparroako Diputazioaren Príncipe de Viana Elkargoko Euskeraren Aldeko Saillak Euskalerriko eta Naparroako aintzineko mintzaera maitagarri eta munduko izkuntz zarrenetako dan euskeraz mintzatzen dakilakoz" ematen ziguten, eta bidenabar gure gurasoei eskerrak ematen zizkieten "Euskeraren iraupenerako lanetaz eskerronak erakutsiz". Bertze nonbait ira-

kurria dut jende hura Iruñetik etorri zela herritarrei erratera "euskaraz jakin eta mintzatzeagatik ez dela ezeren lotsa izan beharrik" eta Diputazioak "saritzen zuela euskaraz jakitea". Modu hartan uxatu nahi zituzten euskaldun aunitzen baitan gerra ondotik kabia egina zuten lotsa eta beldurra.

Nolabaiteko etsamina egin ziguten, euskaraz ba ote genekien ikusteko, eta guk hura pasatu duikabe. Erakutsi didate orduko fotografia, Diputazioaren izenean gehiena ibili zen Pedro Diez de Ultzurrun jauna ageri dena, nexka edo muttikoren batekin solasean, lapitza eskuan, nota jartzeko prest.

Baina saritako ez genuen hitza eta papera bakarrik hartu. Ez zen espantu hutsa izan. Diploma harekin batera, berrehun pezeta ere (orduko berrehun pezeta!) eman zizkiguten, Nafarroako Kutxako libreta batean sartuta. Hura gauza serioa izan zen.

Beran, guzira, 312 neska-mutikok hartu genuen halako paga berezia. Diputazioko Euskeraren Aldeko Sailaren paperetan sarituen izen guziak ageri dira, eta ematen du 1952tik 1960ra bitarte jaioak ginela gehienak, baina iruditzen zait ez ote diren falta izen batzuk. Multzoka jarriak gaude, eskolaz eskola: Maristen eskolakoak, eskola publikokoak (Escuela unitaria de niños eta Escuela unitaria de niñas paratzen du), Uxaneko eskolakoak (harritu naiz zenbat haur ziren), Jesusen Bihotza ikastetxekoak eta, hondarreko, Zalain Zokoko eskolakoak ere bai (han ere koadrila ederra). Eta baserritarrak eta kaletarrak bereiz.

Ez dira atzoko kontuak. Harez geroztik, goiti-beheiti mordoxka izan dugu bazter hauetan, ez bakarrik euskara dela eta. Saria hartu genuen muttiko haiek aspaldi jauntzi genituen galtza luzeak. Neskatxak ere koxkortu ziren, alajainkoa! Diputazioa bera eta Diputaziokoak behin baino gehiagotan kanbiatu dira. Ez beti eta ez gauza guzietan onerako.

Eta guk segitzen dugu bidea egiten, bizikleta gainean. Lepotik zintzilika eramaki dugun kartera urdina pertola baten gisakoa da. Arrantzaleek jakinen dute zer den hori: zuloak ditu eta arrain batzuk eskapatzen zaizkio, baina oroitzapen ederrenak harrapatzen ditu. Orain dela berrogei bat urteko igande arratsalde batekoa, konparazio baterako

**Mikel Taberna**